

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hainbat funtsezko baliabide hartu behar dira kontuan enpresa-proiektu bat martxan jartzeko:

-Externalizazioa:

Kanpoko enpresa batek gara dezake funtsezko baliabide bat, kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko.

-Kostuak murriztea:

Funtsezko baliabideen eragina enpresa baten kostuetan txikitzea. Zenbaitetan, kostuak murriztu ditzake merkatu hobeto segmentatzea edo baliabideak hobeto kudeatzea.

-Hobetzeko aukera:

Produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasuna.

-Iraunkortasuna:

Enpresak bere jarduerari eusteko, funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira.

-Ordezteko aukera:

Funtsezko baliabideak proiektu baten oinarri direnez, ezin izan beharko lukete ordezkatu. Ahal badira ordezkatu, ez ziren benetako funtsezko baliabide edo negozio-eredua aldatu da.

Enpresaren jarduerak Aurrera ateratzeko hainbat baliabide beharko ditugu. Horregatik, sailkapen txiki bat egin dugu hasiera batean enpresa martxan jartzeko beharko dugun horrekin guztiarekin:

- Baliabide fisikoak: Tallerra, bertako erremintak eta web orria nahiz erosketak kudeatzeko beharko dugun equipo informatikoa, hots, telefono mugikorra eta ordenagailua.

- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Web orria bera nahiz hau kudeatzeko abilezia, antolakuntza osoa eta salmentak gauzatzeko gaitasuna, diru kudeaketarako abilezia, patentea eta muntaketa prozesua aurrera eramateko ezagutza.